

BATELCHUAN



Atsegiñez beterik
itsas zabalían,
gošo gošo gabiltza
gure batelían:
pozez gure batelían.

Arki gera zori on
pozkida betían,
olatuak zirrika
plašt datozenían;
gugana datozenían.

Batelchuan arkitzen
geran bakoitzían,
alaitasuna senti
degu biyotzían;
poza gure biyotzían.

Aize gošo legunak
sarrašt badijuaz,
beren *plašt*aran guri
arpegiya juaz;
gure arpegiya juaz.

Siaskacho leguna
ariñ bat bezela
olatuak dantzatzen
baitigu batela;
ariñ dantzatzen batela.

Eta gaitubénian
urak aideratzen,
gure barrena zaigu
pozez zabaldutzen,
pozez zaigu zabaldutzen.

Egaztiak pasatzen
dirade aidían,
agur egiñaz gure
batelen parían;
gure batelen parían.

Ikusten da eguzki
sutsua urpetzen,
eta izarrak diz diz
zeruan azaltzen;
izarrak diz diz azalten.

Gero ezkill-dorreko
Angelus aditzían
tente jarritzen gera
denok buru utsían
tente denok buru utsían.

Jaunari grazi onak
ematen dizkagu
aiñ ongi batelchuan
geralako ibildu
ongi geralako ibildu.

